

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ezkaba mendiko espetxetik 1938an ihes egindako batzuen gorpuk aurkitu dituzte Burutuaingo (Anue) hobi batean

Datozen egunotan aterako dituzte hobitik gorpuzkinak; oraindik ez dakite zenbat lagunena diren

Astelehena, 2017.eko apirilak 10

Hobietatik Gorpuzkinak ateratzeko Nafarroako Gobernuaren Programaren barruan, Aranzadi Zientzia Elkarteak gaur goizean hasi ditu Burutuaingo Kontseiluko (Anue) hobi bat aztertu eta han lurperatutako lagun talde baten gorpuzkinak aurkitzeko lanak.

Garai hartan haurra zen eta gertakarien lekuko izan zen pertsona baten jarraibideei esker aurkitu izan da iheslari haiek lurperatu zituzten leku zehatza. Zentzu horretan, Gobernuak berriro azpimarratu nahi du oso garrantzitsua dela antzerako gertakariak bizi izan zituztenek beren lekukotzak jakinaraztea, beste hobi batzuk aurkitu eta, era horretan, horrenbeste urtez itxoi ten dauden familiei erantzuna eman ahal izateko.

Datozen egunotan aterako dituzte gorpuzkinak; oraindik ez dakite zenbat lagunena diren, baina Ezkaba mendiko espetxetik 1938an ihes egin ondoren erail zituzten lagunena direla bai. Vianako Printzea Erakunde Oondare Zerbitzuaren baimena du esku-hartze horrek.

Nafarroako Gobernuak memoria historikoaren arloan bultzatzen dituen ekintzen barruan sartzan da jarduketa hau ere; helburua da 1936ko errepresioaren biktimen senitartekoen egia jakiteko, justiziarako eta ordaina jasotzeko erreklamazioei erantzuna ematea.